BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

597

23/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Espainiako Gobernuaren eta Durangoko Udalaren arteko Hitzarmena, Europar Batasunak finantzatutako NextGeneration-EU – Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko egoitza-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko, Durangoko udalerriko (Bizkaia) Aramotz auzoko birgaitze programatuko bizitegi-inguruneari dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta, behar bezalako publizitatea emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Espainiako Gobernuaren eta Durangoko Udalaren arteko Hitzarmena, Europar Batasunak finantzatutako NextGeneration-EU - Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko egoitza-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko, Durangoko udalerriko (Bizkaia) Aramotz auzoko birgaitze programatuko bizitegi-inguruneari dagokionez. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 27a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 27KO 23/2023 EBAZPENARENA

ALDEBIKO BATZORDEAREN 5. ERABAKIA, 2022KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO SAIOAN HARTUA, DURANGOKO (BIZKAIA) «ARAMOTZ» BIRGAITZE PROGRAMATUKO BIZITEGI-INGURUNEARI BURUZKOA, ETXEBIZITZAK BIRGAITZEAREN ETA ETXEBIZITZA SOZIALEN ARLOKO LAGUNTZA-PROGRAMAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN (NEXT GENERATION EU)

2022ko abenduaren 20a.

AURREZ AURRE BILDU DIRA:

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren izenean, Francisco Javier Martín Ramiro jauna, Etxebizitza eta Lurzoruaren zuzendari nagusia, hura izendatzea xedatzen duen otsailaren 11ko 355/2020 Errege Dekretuaren arabera, eta Aldebiko Jarraipen Batzordearen buru gisa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoaren babesean (853/2021 Errege Dekretua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren laguntza-programak arautzen dituena, bizitegiak birgaitzeari eta etxebizitza sozialei dagokienez).

Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, Ignacio de la Puerta Rueda jauna, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendaria, hura izendatzea xedatzen duen urtarrilaren 26ko 43/2021 Dekretuaren arabera, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoaren babesean jardunez.

Durangoko Udalaren izenean, Ima Garrastatxu Urbaneja andrea, alkatea, 2019ko ekainaren 15eko Osoko Bilkura Berezian hartutako erabakiaren arabera, aipatutako 853/2021 Errege Dekretuaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren babesean jardunez.

ADIERAZTEN DUTE:

1.– Arestian aipatutako 853/2021 Errege Dekretuak, beste laguntza batzuen artean, honako hau arautzen du: Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –Next Generation-EU– «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa». Plan horren xedea da finantzaketa ematea batera egiteko nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetako eta etxebizitzetako –familia bakarreko etxebizitzak barne– birgaitze-obrak eta -jarduketak eta Birgaitze Programatuko Bizitegi Inguruneak (BPBI) izeneko jarduketa-esparruen barruko espazio publikoak –aldez aurretik mugatuta daudenak edozein biztanleria-tamainako udalerrietan– urbanizatzeko edo berrurbanizatzeko lanak.

2.– Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak Euskal Autonomia Erkidegoari, 2021eko urriaren 26ko eskualdatze-ebazpenaren bitartez, 55.915.580 euroko zenbatekoa eskualdatu dio, C02.I01 «Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa» inbertsioari dagokiona. Horrez gain, kreditua transferitzeko aipatutako ebazpenetan, Autonomia Erkidegoak programen kudeaketan dituen betebeharrak jasotzen dira. Betebehar horien artean, zeharkako printzipioak betetzea dago (ondorengo aginduetan araututa: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, kudeaketa sistema eratzen duena eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beha-

rreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzeko). Autonomia Erkidegoak proposatutako jarduketei dagokienez, betebehar horiek betetzen direla egiaztatuko duela adierazi du, bai zuzenean, bai ezartzeaz arduratzen diren erakunde betearazleen aldetik.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoak Durangoko (Bizkaia) «Aramotz» Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunea (BPBI) finantzatzea eskatu du, «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan, 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan ezarritakoa betez, dirulaguntzak emango dizkio zuzenean Durangoko Udalari ondorengo arrazoiengatik (artikulu horretan aurreikusiak).

Eremua EAEko 251 udalerriei eginiko «interes-kontsultari» buruz jasotako erantzunetan oinarrituta aukeratu da; udalerrien artean, heltze-maila handienekoak aukeratu dira. Bestalde, nabarmendu behar da BPBI honetan jasotako etxebizitzak kalteberatasun-arrisku oso handiko eremuetako batean daudela, Eusko Jaurlaritzak eginiko Kalteberatasun Inbentarioaren arabera.

Ondorioz, bai Euskal Autonomia Erkidegoak bai Durangoko Udalak uste dute egiaztatuta geratzen direla interes publikoa eta muga sozial eta ekonomikoak, dirulaguntza horiek zuzenean emateko beharra justifikatzen dutenak, ezin direlako dagoeneko gauzatu den lehia publikoko prozesuaz bestelako baten mende jarri.

5.– Proposamenean, birgaitze-bulego bat sortzea aurreikusten da, BPBIan programatutako jarduketen kudeaketa eta garapena errazteko.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoak adierazten du jarduketak 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak betetzen dituela, eta, bereziki, errege-dekretu horren 10. artikuluan (eremuaren lurralde-mugaketari eta etxebizitzarako bizitegi-erabilerarako eraikigarritasun-mugei buruzkoa) eta 12. artikuluan ezarritakoak (BPBIak kudeatzeko akordioari buruzkoa).

7.– Administrazio sinatzaileek beharrezkoa irizten diote akordio honen xede den eremu mugatuko jarduketak finantzatzeari, eraikinak berritzea sustatu, eta gutxienez energia primario berriztaezinean % 30 aurreztea lortzeko.

8.– Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak, Aldebiko Jarraipen Batzordeak 2022ko martxoaren 28an egindako Akordioaren bitartez, kalteberatasun-irizpideak ezarri dituzte, «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» esparruan (1. programa) aplikatuko direnak, bai eta dagozkien gehieneko zenbatekoak ere.

Arestian azaldutako aurrekariak aztertu dira, eta urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 9. artikuluaren eta ondorengoen arabera («Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programari» buruzkoak), honako hau

ADOSTEN DUTE:

Lehenengoa.– Laguntzen xede izango den BPBIa definitzea.

Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki honen bitartez «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programako» (1. programa) dirulaguntzen xede izango den BPBIa definitzen da.

BPBIak Durangoko (Bizkaia) «Aramotz» eremuari eragiten dio, eta 2022ko otsailaren 28ko memorian zehaztu da. Agiri hori Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiari igorri zitzaion 2022ko martxoaren 23an. BPBI horrek Aramotz kaleko 1.tik 16.era bitarteko atariak hartzen ditu barnean, eta guztira 132 etxebizitza ditu.

Akordio honen xede den BPBIan, gehienez 132 etxebizitza inguru birgaitzea programatu da, 12,77 hektareako jarduketa-azalerarekin. Jarduketaren guztizko kostua 11.034.793,00 eurokoa izango dela aurreikusi da (BEZa barne), eta diruz lagun daitekeen inbertsio bat ere kalkulatu da, «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan, 7.106.202,29 eurokoa, honela banakatuta:

1. programa: Diruz lagun daitekeen inbertsioa	
Eraikinak birgaitzea	3.932.494,35 €
Ingurune fisikoa urbanizatzea, berrurbanizatzea eta hobetzea	2.670.710,86 €
Birgaitze Bulegoa	502.997,08 €
GUZTIRA	7.106.202,29 €

Bigarrena.– Energia-helburuak.

Akordio honen xede den BPBIa osatzen duten eraikinak birgaitzeko jarduketan, energia primario berriztaezinaren kontsumoa % 60 baino gehiago murriztea aurreikusten da.

Hirugarrena.– Jarduketak finantzatzea.

Jarduketak jarraian ezarritakoaren arabera finantzatuko dira; hain zuzen, ekarpenei dagozkien urterokoak ezarriko dira.

– Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eskualdatutako funtsen kargura, 2021eko urriaren 26ko eskualdatze-ebazpenaren bidez eta «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan (1. programa), programa horretan diruz lagun daitekeen inbertsioan sartutako kostuen 3.665.809,61 euro finantzatuko da gehienez, honela banakatuta:

Eraikinak birgaitzea	Oinarrizko laguntza	2.850.393,60 €
	Kalteberatasun-plusa	286.096,01 €
Ingurune fisikoa urbanizatzea, berrurbanizatzea eta hobetzea		423.720,00 €
Birgaitze Bulegoa		105.600,00 €
GUZTIRA		3.665.809,61 €

Dirulaguntzaren xedea Durangoko udalerriko (Bizkaia) «Aramotz» auzoko etxebizitzak birgaitzea da, 853/2021 Errege Dekretuan eskatzen diren baldintzen arabera.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, dirulaguntzaren xedea betetzen duten eta benetan birgaituta dauden etxebizitzen kopurua hartuko da kontuan, 853/2021 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren eta dirulaguntzaren gehieneko ehunekoaren irizpideei jarraituz.

– Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen du 3.417.776,00 euro finantzatzeko, 2021-2022ko eta 2023ko urterokoetan egin beharreko ekarpenen bidez (1.910.001,00 euro eta 1.507.775,00 euro hurrenez hurren), jarduketen gauzatze-mailaren arabera.

– Durangoko Udalak konpromisoa hartzen du 1.088.354,86 euro finantzatzeko, 2021-2022ko (380.924,20) euro, 2023ko (544.177,43) euro eta 2024ko (163.253,23) euro urterokoetan egingo diren ekarpenen bitartez. Urterokoen banaketa hori gutxi gorabeherakoa da, eta jarduketen gauzatze-mailaren arabera birdoitu ahal izango da.

– Partikularrek 2.862.852,53 euroko ekarpena egingo dute, dagozkien urterokoetan, jarduketen gauzatze-mailaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoak agiri hau sinatuz egiaztatzen du diruz lagundu daitezkeen jarduketen kostuak guztira, tributuak kontuan hartu gabe, ez dituela gainditukо autonomia-erkidego horri dagozkion jarduketa horien merkatuko batez besteko kostuak.

Laugarrena.– Programako laguntzak emateko prozedura.

«Aramotz» BPBIa birgaitzeko jarduketetarako laguntzak zuzeneko prozeduraren bidez emango zaizkio Durangoko Udalari.

Durangoko Udala izango da BPBIko jarduketak gauzatzearen arduraduna.

Durangoko Udalak birgaitze-bulegoko zerbitzuak emango ditu, eta programatutako jarduketen kudeaketa eta garapena erraztuko ditu, ingurune fisikoa urbanizatzeko, berrurbanizatzeko edo hobetzeko obrak egingo ditu, eta higiezinak birgaitzeko jarduketak bultzatuko ditu.

Bosgarrena.– Autonomia-erkidegoaren konpromisoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako konpromiso guztiak bete beharko ditu, eta, bereziki, dirulaguntza osoa ordaindu aurretik egiaztatu beharko du jarduketak erabat amaitu direla eta azken hartzaileek dirulaguntzaren xede diren laguntzak eta 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak bete dituztela. Horretarako, beharrezkoak diren egiaztagiriak bildu beharko ditu.

Era berean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruan ezarritako baldintza guztiak onartzen ditu, eta konpromisoa hartzen du Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari SEEPen esparruan, Europako edo Estatuko araudiarekin bat, eska daitekeen beste edozein txosten edo egiaztagiri aurkezteko, bai eta eskatzen zaion informazioa emateko ere, planaren kudeaketa- eta jarraipen-sistema egokia betetze aldera.

Seigarrena.– Akordioaren jarraipena.

Akordio honetan jasotako jarduketen jarraipena Aldebiko Jarraipen Batzordeak egingo du, honako hauetan ezarritakoaren arabera: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 72. artikulua, HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrion aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko).

Arestian aipatutakoa gorabehera, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak obra eta jarduketen gauzatze-egoera egiaztatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak, bisitak eta jarduketak egin ahal izango ditu, bai eta akordio honetan hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzekoak ere.

Halaber, Aldebiko Jarraipen Batzordeak sor daitezkeen gertakizunen aurrean beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izango ditu akordio honetan, jarduketak osorik gauzatzen direla bermatzeko, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zazpigarrena.– Akordioaren iraupena.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Durangoko Udalak konpromisoa hartzen dute finantzatuko diren jarduketak 2026ko ekainaren 30erako amaituta egongo direla, eta jarduketak amaitu direla eta dirulaguntzaren xedea bete dela dioten egiaztagiriak aurkeztuko dizkiola Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari, 2026ko abenduaren 31 baino lehen.

Alderdiek akordio hau betez bere gain hartutako betebeharrek jarduerak amaitzeko eta justifikatzeko adierazitako alditik harago iraungo dute, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruan hartutako konpromisoak eta helburuak bete ahal izateko, beharrezkoa denaren arabera, eta planak eta errege-dekretu horrek etxebizitzak birgaitzearen eta etxebizitza sozialak eraikitzearen arloetan ezarritako helburuak betetzeko.

Zortzigarrena.– Eranskinak:

– «Aramotz» BPBIaren laburpen-fitxa.

– BPBIa osatzen duten higiezinen mugaketa-planoa.

Sinadura honek balio juridikoa izan dezan, erakunde sinatzaile bakoitzak akordio honen edukiak gauzatzeko nahitaezkoak diren ebazpenak izapidetu eta onartu beharko ditu bere organo eskudunen aurrean.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bertaratuek dokumentu hau sinatu dute adierazitako egunean.

Etxebizitza eta Lurzoruaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO JAVIER MARTÍN RAMIRO.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendaria,
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA.

Durangoko alkatea,
IMA GARRASTATXU URBANEJA.

Ondorengoen aurrean:

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea,
MIGUEL DE LOS TOYOS.

Hiri Agenda eta Etxebizitzako idazkari nagusia,
FRANCISCO DAVID LUCAS PARRÓN.


Eta

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroa,
RAQUEL SÁNCHEZ JIMÉNEZ.

MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA · DIRECCIÓN GENERAL DE VIVIENDA Y SUELO · Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia · Financiado por la Unión Europea

I. ERANSKINA

«ARAMOTZ» BPBI-AREN LABURPEN-FITXA. DURANGO

0. BPBI-AREN IDENTIFIKAZIOA		
Autonomia-erkidegoa.	EAE	
Udalerria.	Durango	
BPBIaren izena.	Aramotz auzoa	
Zona klimatikoa.	C1	
HBBJ edo antzekoren bat dagokio.	BAI	
1. DATU OROKORRAK		
Oinarrizko datuak	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Eremua jarraitua edo etena da.	Jarraitua	Aramotz eremu jarraitua da.
Eremua osatzen duten eraikinen kopurua, guztira. Atal honetan, birgaitzeko jarduketa-proposamenean sartutako higiezinak soilik adierazi behar dira.	16	
Eremua osatzen duten etxebizitza kopuruaren BATURA, GUZTIRA.	132	
Eremua osatzen duten etxebizitza publikoen kopurua. Atal honetan, birgaitzeko jarduketa-proposamenean sartutako higiezinak soilik adierazi behar dira.	0	
Eremua osatzen duten etxebizitza pribatuen kopurua. Atal honetan, birgaitzeko jarduketa-proposamenean sartutako higiezinak soilik adierazi behar dira.	132	
Merkataritza-erabilerarako edo beste erabilera batzuetarako sestra gaineko metro koadroak, kasuan kasuko onibarrak jarduketa gauzatzeko kostuen parte badira.	133	
Eremuaren hektarea kopurua. Jarduketa-proposamenean zehaztutako hiri-jarduketarik badago, lizitazioak jasotzen duen azalera. Bestela, eraikinen aztarnak soilik.	12,77	
Eremuan aurreikusten diren jarduketak:		
Esku-hartzean, irisgarritasun-, kontserbazio- eta/edo mantentze-jarduketarik aurreikusten da?	BAI	Energia-efizientzia: neurri pasiboak eta aktiboak; irisgarritasuna; ElTen araberako beste jarduketa batzuk
Ingurunea urbanizatzeko, berrurbanizatzeko eta hobetzeko jarduketak aurreikusten dira?	BAI	Berrurbanizazioa naturan eta uraren zikloan oinarritutako konponbideak emanez, errekasto baten desbideratzea barne
BPBIrako birgaitze-bulegoa sortzea aurreikusten da?	BAI	Sortuta dago eta lanean ari da
Jarduketaren heldutasuna	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Esku-hartzearen heltze-maila: Altua: obrak hasita/ Tartekoa: proiektua dokumentatuta/ Baxua: aztertzen.	Altua	Atari guztien proiektua du, egoki dokumentatuta; obrak esleituta daude eta atari guztiekin mankomunitate bat osatu da, eta hori ondo informatuta dago eta erabakitzeko gaitasuna du.
Esku-hartzearen heltze-maila altua bada, adierazi diruz lagundu daitezkeen jarduketen obren hasiera-data.	2022/06/01	
Kalteberatasun ekonomikoa	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
BPBIko jabeentzako kalteberatasunagatik laguntza osagarririk ematea aurreikusten da?	BAI	
Adierazi kalteberatasun ekonomikoaren irizpidea.	Bai, diru-sarrera gordin hauek dituzten bizikidetza-unitateetarako: <25.000 €. Ikus erantsitako taula	
Kalteberatasun-irizpidea betetzeagatik laguntza osagarria jasoko duten jabeen ehuneko zenbatetsia.	% 42	Gizarte-irizpideen araberako premien zenbatespena egin da; premia horiek aldatu egin litezke proiektua garatu ahala.
Kutsadura prebenitu eta kontrolatzea	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Ba al dago amiantorik eremuko eraikinetan?	EZ	Eskura ditugun datuekin ez da ikusten amiantoa dagoenik
Kudeatzeko eta egikaritzeko prozedura	**Erantzuna**	
Deskribatu labur-labur jarduketak garatzera bideratutako laguntzak emateko prozedura. (Adib.: zuzeneko emakida aurreikusten da, jabekideekin edo jabekideen erkidegoekin akordioa dago, jarduketen lizitazioa aurreikusten da...).	Jarduketak onartzen dituzten erkidegoei zuzeneko emakida, Durangoko Udalak egindako deialdian eskaera aurkeztu ondoren. Deialdiaren oinarri arautzaileak gainerako eremuekin komunak izango dira. Birgaitze Bulegoak kudeatzen ditu laguntzak. Lan teknikoen eta obren lizitazioan, Eusko Jaurlaritzako Hiri Berroneratze Zerbitzuak eta udal-teknikariek egindako baldintza-agiri komunak erabiliko dira, aurkezten diren eskaintzak baloratzeko. Esleipen-proposamenaren txostena egingo da, eta jabeen erkidegoek txosten horri jarraitu behar diote. Birgaitze Bulegoak onuradunei lagunduko die prozesuan.	
2. BPBI-AREN BALDINTZAK		
BPBIaren betekizunak	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Eremuaren edo auzoaren lurralde-mugaketa egin da, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioaren erabakiz. (853/2021 Errege Dekretuaren 10. artikulua).	BAI	Eusko Jaurlaritzak «interes-kontsulta» egin die EAEko udalei, eremu kalteberen garapena adosteko. Gobernu Kontseiluaren erabakia, udalari jarduketa horietan laguntzeko zuzeneko dirulaguntzak emateko.
Gutxienez, BPBIari dagokion sestra gaineko azalera eraikiaren % 50ak (beste erabilera batzuetarako diren beheko solairuak edo etxabeak kenduta) edo indarrean dagoen plangintzaren ondoriozko eraikigarritasunaren % 50ak etxebizitzarako bizitegi-erabilera du erabilera nagusitzat. (853/2021 Errege Dekretuaren 10. artikulua).	BAI	




«ARAMOTZ» BPBI-AREN LABURPEN-FITXA. DURANGO		
Kudeaketa-akordioa sinatzeko dokumentazioa (853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikulua)	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Eremuaren (BPBI) mugaketa kartografikoa aurkeztu da formatu digitalean («shape» georreferentziatua).	BAI	Baita PDF formatuan ere.
BPBIan sartuta dauden eta jarduketaren xede diren higiezin guztiak argi eta garbi identifikatzen dituen zerrenda bat dago. Katastroko erreferentzia duen zerrenda.	BAI	Posta-helbideen zerrenda eskaeran, Bizkaiko Katastroko erreferentziekin
Memoria-programa aurkeztu da, honako hauek barne: Atalen bat bete ez bada, mesedez, adierazi arrazoia iruzkinen laukian.		
Demografia-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-egoerari buruzko diagnostikoa.	BAI	
Diruz lagundu daitezkeen jarduketak, egokitasun teknikoa, eta gauzatze- eta kudeatze-moduak deskribatzen dituen programa eta denbora-programazioa.	BAI	Jarduketen amaiera: Beranduenez, 2024ko abendua
Neurri osagarriak, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren arloko proposamenak, inplikatutako erakunde publiko eta pribatuak eta neurriak abian jartzeko, garatzeko eta haien jarraipena egiteko ezarritako konpromisoak.	BAI	
Bideragarritasun teknikoaren memoria, jarduketak hirigintza-antolamenduarekin bateragarriak direla egiaztatzeko.	BAI	
Bideragarritasun ekonomikoari buruzko memoria, jarduketak jabeentzat izango duen errentagarritasuna eta onuren eta kargen arteko oreka aztertuko dituena.	BAI	
Proposamenaren energia- eta ingurumen-helburuak identifikatzen dituen memoria teknikoa.	BAI	
Aldi baterako ordezko bizitokia emateko eta jatorrizko bizitokira itzultzeko plana, hala badagokio, ordezko bizitokia emateko epeak eta horren kostuak eta eraginpeko biztanleentzat aurreikusitako neurri sozial osagarriak adierazita.	EZ	Ez da beharrezkoa ordezko bizilekurik ematea
BPBIa hautatzeko aplikatutako irizpideei buruzko txostena (proposamenaren kalitate teknikoa, baliabideen erabileraren efizientzia, jarduketen izaera integrala, izaera estrategikoa eta hiri-agendarekiko lotura, jasangarritasunaren hobekuntza, administrazio-prozeduren digitalizazioa eta/edo hobekuntza, etab.).	BAI	
3. ENERGIA AURREZTEKO HELBURUAK		
Jarduketarekin aurreztutako energia. Adierazi X batez zenbatetsitako aurrezkia: Bat baino gehiago markatuz gero, adierazi iruzkinetan kasu bakoitzari dagokion etxebizitza kopurua eta lokalen m^2.	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
% 30 ≤ Energia primario berriztaezinaren kontsumo-murrizketa < % 45 (gehieneko dirulaguntza: % 40)		
% 45 ≤ Energia primario berriztaezinaren kontsumo-murrizketa < % 60 (gehieneko dirulaguntza: % 65)		
Energia primario berriztaezinaren kontsumo-murrizketa ≥ % 60 (gehieneko dirulaguntza: % 80)	X	
Hala badagokio, adierazi berokuntza- eta hozkuntza-eskari globala murrizteko baldintza betetzen den:		
D eta E zona klimatikoak: ≥ % 35		
C zona klimatikoa: ≥ % 25	BAI	
Aurrezte-eskakizunak betetzetik salbuestea:		
Babes historikoa duten eraikinak.	EZ	1950eko hamarkadan eraikitako multzo unitarioa
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi egoera horretan dauden eraikinen kopurua.		
Jarduketen xehetasuna:	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Fatxada hobetzea.	BAI	SATE sistema eta fatxada aireztatuta duten etxabeak
Estalkia hobetzea.	BAI	Berritzea eta isolatzea
Kanpoko leihoak eta beirak ordeztea.	BAI	Zubi termikoaren hausturaren sistema eta beira bikoitza duten leihoak ordeztea
Klimatizazio-sistema ordeztea (berokuntza eta/edo hozkuntza) erregai fosila erabiltzen ez duen beste batekin.	EZ	Galdarak ordeztea eta gas natural bidezko kondentsaziozkoak jartzea
Ur bero sanitarioko sistema ordeztea, erregai fosilik erabiltzen ez duen batekin.	EZ	Aurreko kasuaren berdina. Etxeko ura berotzeko eta berogailuentzako galdara
Energia berriztagarria sortzeko sistemak instalatzea.	BAI	Panel fotovoltaikoak instalatzea estalkietan, obren eskaintzen arabera aztertu beharrekoa.
Beste batzuk:		
4. DATU EKONOMIKOAK		
Jarduketaren aurrekontua guztira	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
MITMA/NextG-ri eskatutako ekarpena:	3.665.809,61 €	Zenbateko hori 1. programaren kontura eskatutakoa da. 853/2021 EDaren 4. eta 5. programen kargura beste 580.129,60 € eskatuko dira.
Autonomia-erkidegoaren funtsen ekarpena:	3.417.776,00 €	
Udal-funtsen ekarpena:	1.088.354,86 €	
Estatu-mailako beste laguntza batzuen ekarpena:	-	
Europako funtsen beste laguntza batzuen ekarpena:	0,00 €	853/2021 Errege Dekretuko 4. eta 5. programak
Azken hartzaileen (jabeak) ekarpena:	2.862.852,53 €	
KOPURUA, GUZTIRA	**11.034.793,00 €**	



«ARAMOTZ» BPBI-AREN LABURPEN-FITXA. DURANGO		
Diruz lagundu daitekeen jarduketaren kostua	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Diruz lagundu daiteken zenbatekoa, guztira:	7.106.202,29 €	
Diruz lagundu daitezkeen jarduketetan BEZa sartzen da?	BAI	
Eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
Eraikinak birgaitzea:	2.850.393,60 €	Zenbateko hori 1. programaren kontura eskatutakoa da. Beste 580.129,60 € eskatuko dira 4. eta 5. programen kargura.
Amiantoa kentzea:	0,00 €	
Hiria berroneratzea:	423.720,00 €	
Birgaitze Bulegoa:	105.600,00 €	
Kalteberatasun ekonomikoko egoeretarako zenbateko osagarria:	286.096,01 €	
KOPURUA, GUZTIRA	3.665.809,61 €	
5. ZEHARKAKO BALDINTZAK BETETZEA		
Aurkeztutako proposamenak zeharkako betebehar hauek beteko ditu:	**Erantzuna**	**Iruzkinak**
CID helburuak eta mugarriak betetzea.	BAI	
Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.	BAI	
Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea (DNSH printzipioa).	BAI	
Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.	BAI	
Finantzaketa bikoitzaren bateragarritasuna eta prebentzioa.	BAI	
Funtsen azken hartzailea identifikatzea.	BAI	
Komunikazioa eta publizitatea.	BAI	

II. ERANSKINA

«ARAMOTZ» BPBIAREN MUGAKETA, DURANGO. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA



BPBIaren kokapena Durangoko udalerrian

«ARAMOTZ» BPBI

